



Arartekoaren 2018S-2079-16 Ebazpena, 2018ko apirilaren 18koa. Horren bidez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari iradokitzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria aitortzeko eskaeraren ukapena berrikus dezala.

Aurrekariak

1-. Herritar batek erakunde honetan kexa bat aurkeztu du, arrazoi honengatik: Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzako prestazio osagarria azkendu zizkion, eta horren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen, baina errekurtso horri ez zaio erantzunik eman; gainera, egindako eskabide berria ukatu zaio, prestazio biak eskatu ahal izan gabe igaro beharreko urtebeteko epea ez delako igaro.

Zehazki, enpleguko erakunde autonomoak prestazioa azkentzea erabaki zuen, 2015eko abenduaren 19ko ebazpenaren bidez, hau alegatuz, funtsean:

“(..)INGRESOS DECLARADOS NO REALES (SUELDO DE EMPLEADO SUPERIOR A INGRESOS DECLARADOS POR TITULAR).

Disponer el titular y/o el miembro/s de la UC de ingresos por trabajo superior a la cuantía mensual de la Renta de Garantía de Ingresos que pudiera corresponder en función del número de miembros y tipo de unidad de convivencia.

No comunicar a Lanbide los hechos sobrevenidos en relación al cumplimiento de los requisitos de la RGI o la PCV. CONTRATACIÓN DE PERSONAL.”

Azkentzeko ebazpenarekin ados ez zegoenez, 2016ko otsailaren 2an kexagileak aukerako berraztertze errekurtsoa jarri zuen bere Lanbideko bulegoan, Txurdinagakoan, Bilbon. Idazki hartan azpimarratu zuenez, norbera autonomia denean eta aldi berean diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra denean langileak kontratatuta edukitzeko ezintasunari buruz ez zeukan informaziorik, eta gainera, bere bizikidetz-unitaterako diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren kontzeptu gisa onartutako kopuruetatik gorako diru-sarrerarik ez zeukala egiaztatu zuen.





Era berean, zera azaldu zuen: lehenengo eskarian, 2012an, baita berritzean ere, 2014an, inguruabar horren berri eman zuen, eta hori guztia gainera hilero aurkezten zituen banku-mugimenduetan ageri zen. Hain zuzen ere, mugimendu horietan agertzen zen haien bien gizarte segurantzaren ordainketa.

2016ko urriaren 24an, kexa aurkeztu zuenean, artean erantzunik jaso gabe jarraitzen zuen.

2-. Geroago, Euskal Enplegu Zerbitzuak, 2016ko martxoaren 19an, ukatu egin zuen 2016ko otsailaren 19an aurkeztutako eskaria, honako hau oinarri hartuta: *“Prestazioa eskatzea betebeharrak ez betetzeagatik aurrekoa amaitutzat eman ziotenetik urtebete igaro baino lehen.”*

3-. Aldi berean, Lanbidek prestazioak itzultzeko prozedura bat hasi zuen, 2016ko maiatzaren 3ko data daukana eta zio honek eragin zuena: *“Pérdida de requisitos. FRAUDE Y OCULTACIÓN DE DATOS E INGRESOS. NO COMUNICAR TENER PERSONAL CONTRATADO (NO PERMITIDO TENER PERSONAL CONTRATADO SIENDO PERCEPTOR DE RGI). LOS INGRESOS QUE SE DECLARAN NO SON REALES.”*

33.990,14 euro eskatu ziren itzultzeko, eta berrikusitako epea 2012-10-01etik 2015-11-30era bitartekoa zen, hau da, araudiak preskripzio-epe gisa aurreikusten duen aurreko lau urteko epearen barruan –prozedura 2016ko maiatzean hasi zen-.

Kexagileak urte bereko ekainaren 21ean aurkeztu zituen alegazioak, bere prestazioak azkentzeko ebazpenaren aurka eman zituen justifikazio berberak azalduta.

4-. Hitz horiekin jo genuen Lanbidera eta, 30 eguneko epean, erreklamazioaren xedearekin zerikusia zuten hainbat inguruabarri buruz informatzeko eskatu genion. Hauxe eskatu genion, zehazki:

- Zein arrazoi zehatz egon ziren Lanbidek laneko diru-sarrerak osatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzeko, urratutako oinarri juridikoa berariaz aipatuz.
- Zein arrazoi dagoen, Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 124.2. artikuluekin bat eginez, oraindik ere jarritako aukerako berraztertze errekurtsoari ez erantzuteko.





- Kexagilearen espedientea zein izapidetze egoeratan dagoen eta, hala badagokio, aukerako berraztertze errekurtsoaren kopia bat igortzea.
- Kexaren xedearekin erlazionatuta dagoen eta gure jardunerako interesgarria izan daitekeen beste edozein inguruabar.

5-. Azkenean, Lanbideko zuzendari nagusiaren idazki bat jaso zen erakunde honen erregistroan. Erantzuna, labur-laburra, honako hau izan zen:

“Gutun honen bidez, XXX XXX jaunak aurkeztutako kexa dela-eta bidali zenuen idazkiari erantzun nahi diogu. Espedientea ikusi da, eta honako hau egiaztatu da:

Pertsona horrek errekurtsoaren ebazpenaren atzerapenagatik kexa aurkeztu zuen; 2017/04/28an jakinarazitako ebazpena eranstu dugu.

Une honetan, DSBEn beste eskaera bat du aurkeztua Lanbideko beste bulego batean, eta hari dokumentazioa eskatu zaio.”

6-. Informazio nahikorik ez zegoenez Arartekoa, lehenengoz, kexaren sustatzailearekin harremanetan jartzen saiatu zen, kexaren espedientea behar bezala tramitatu ahal izateko falta ziren ebazpenak erakundeari hark aurkezteko. Harremanetan jartzea ezinezkoa izan zen. Horregatik, informazioa bigarren aldiz eskatu zen, orduan administrazioari eskatu zitzaion, eta honako puntu hauek argitzeko eskatu zen:

- Zein arrazoi dagoen, Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 124.2. artikularekin bat eginez, oraindik ere geroago eskaera berria ukatzeko zio nagusia bihurtuko zen azkentzearen aurka jarritako aukerako berraztertze errekurtsoari ez erantzuteko. Arren eskatzen dizut ebazpenaren kopia bidali diezadazun.
- Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria azkentzeko dituen arrazoiak, urratutako oinarri juridikoa berriaz aipatuz. Bereziki, informazio gehiago autonomia eta diru-sarrerak osatzeko diru-sarrerak bermatzeko errentaren jasotzailea izatean langileak kontratatuta edukitzearen eragozpenari buruz.
- Azkentzeko zio berberengatik prestazio desegokiak itzultzeko prozeduraren izapidetze egoera.
- Azaldutako kexa argitu dezakeen beste edozein inguruabar.

7-. Azkenik, Lanbideren erantzuna sartu da. Erantzun horrek xehetasun gehiagorekin garatzen ditu kexaren espedienteko funtsezko alderdiak. Hala ere,





esan behar da berriro iragartzen dela ebazpen bat aurkeztuko dela, baina azkenen ez dela halakorik aurkeztu.

Txostenaren edukia honako hau da:

"Errekurtsoa erantzunda eta ezetsita dago, ebazpen-data 2017/04/18 eta jakinarazpen-data 2017/04/28 direlarik. Ebazpenaren kopia igortzen dugu honekin batera.

Titularraren alegazioak ezetsi egin ziren. Titularrak alegazioetan argudiatu zuen ez zekiela bere negozioan 2 langile kontratatu zituela jakinarazi beharra zuenik, ez eta benetako diru-sarrerak aitortu behar zituenik ere. Interesdunak PFEZ aitorpenak aurkezten zituen, eta bere negozioan iruzurra egon bazen, Foru Ogasunak du hori ikertzeko eskumena, eta ez Lanbidek.

DBEren ikuspegitik, ulertzen da ez zituela baliabideak arduraz kudeatu, DBEren xedea gizarteratzeko eta/edo laneratzeko prozesu bateko gastuak estaltzea delako; laguntza arautzen duen dekretuaren arabera, honako gastu hauek: "gizarteratze- edota laneratze-prozesuak dakartzan gastuak, prozesu hori gauzatzeko ezinbestekoak direnak".

2017/REI/033598 zenbakiz izapidetutako itzulketaren zenbatekoa 33.990,14 €-koa da; hilean 30 euroko kuota soziala aplikatzen ari zaio 2017ko abenduaz geroztik, eta gaur egun ordaintzeko geratzen zaion zenbatekoa 30.806,70 €-koa da."

Hortaz, beharrezkoak diren egitate eta zuzenbide elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin ditugu:

Gogoetak

1-. Kexa-espeditente honen tramitazioaren bidetik hiru prozedura sortu dira, eta prozedura horiek honako lerro hauetan aztertuko dira: lehenengoz, kexa irekitzeko arrazoa izan zen 2015. urtean kexagilearen titulartasuneko diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria azkendu zirela; bigarrenez, Lanbidek 33.990,14 euro itzuli behar zirela deklaratu zuen, uste zuelako "datuak ezkutatu zirela eta iruzurra" egin zela, arrazoi berberarengatik; azkenik, kexagileak ikusi zuenez, diru-sarrerak bermatzeko errentarako eta etxebizitzarako prestazio osagarriko egindako eskaera berria ukatu zioten, eskaera hura egin zuen datan artean ez zelako igaro araudiak kasu jakin batzuetan diru-sarrerak bermatzeko errenta berriro eskatzea eragozten duen urtea.





2-. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria azkentzeari dagokionez, kexaren sustatzaileak dioenez, ez ditu ezkutatu bere enpresan enplegatu bat izateari buruzko datuak; dioenez, halaber, 2012. urteko lehenengo eskaeran, 2014. urteko berritzean nahiz Lanbiderekiko harremanak iraun duen bitartean egindako banku-mugimenduen aurkezpen guztietan, bi langile horien gizarte segurantzako ordainketak ageri ziren.

Lanbidek prestazioa azkentzea ebatzi du Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.c) artikulua dioenaren arabera, azaroaren 24ko 4/2011 Legeak emandako idazketan: *“c) Eskubidea aitortzeko eskatzen diren baldintzetakoren bat betiko galtzea.”*

Hain zuzen ere, Lege horrek berak 16.c) artikuluan jasotzen dituen betekizunetako bat honako hau da:

“c) Nahiko baliabiderik ez edukitzea. Horrelako baliabiderik ez daukatela joko da honako baldintza hauek guztiak betetzen direnean:

– Bizikidetza-unitateko kide-kopuruaren arabera legokiokeen gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarritzko errentaren hileko zenbatekoaren azpitik dauden diru-sarrerak edukitzea hilean.

– Ondasun higiezinik ez edukitzea, ohiko etxebizitza izan ezik, betiere etxebizitza horrek aparteko baliorik ez badu, erregelamendu bidez zehaztuko den moduan.

– Dazkaten dirua eta baloreak gehienez ere honenbestekoak izatea: batere baliabiderik ez luketen kasuan bizikidetza-unitateko kideen kopuru osoaren arabera legokiokeen diru-sarrerak bermatzeko errentaren urteko zenbatekoa halako lau.”

Lanbidek prestazioa azkendu zela deklaratu zuen, beste hainbat arrazoiren artean, kexagilearen diru-sarrerak handiagoak zirelako deklaraturakoak baino.

Interesdunak bere kontura eta gutxieneko diru-sarrerekin –are gehiago, galerekin– egiten zuen lan-jarduerarako enplegatu bat kontratatu izana, eta enplegatu horren nominen ordainketak enpresaren jabe eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradun zen horrek etekin gisa jasotako diru-sarrerak gainditu izana, erakunde honen iritziz abenduaren 13ko 18/2008 Legearen 16. artikulua betekizuna galtzeko arrazoien barruan sar daitezke.





Lanbiderekin adostasuna dago honako honetan: diru-sarrerak bermatzeko errentaren xedea da pertsona-, gizarte- edo lan-arloko bazterkeria gainditzen laguntzea, eta herritar izateak dakartzan eskubide sozialak benetan gauzatzeko ezintasunak dituztenei behar beste baliabide pertsonal, sozial eta ekonomiko ematea, gizarteratzen laguntzeko, eta hain zuzen ere abenduaren 13ko 18/2008 Legearen 1. artikuluan jasota dago hori; beraz, ezin da babespean hartu pertsona baten kontratazioa.

Nolanahi ere, kontratazio hura lehenago detektatu ahal zen, behar ez bezalako prestazio ekonomikoak sortzea eragozteko; kasu honetan, aurrerago ikusiko dugunez, prestazio horien zenbatekoa 33.990,14 euro izan da.

3-. Kexa-espedita honetan aztertzen den bigarren prozedura, kexagilearen geroagoko beste eskaera bat ukatzea da.

Lanbidek 2016ko martxoaren 19ko kexaren titularraren eskaera berria ukatu zuen, honako hau oinarri hartuta: *"Prestazioa eskatzea betebeharrak ez betetzeagatik aurrekoa amaitutzat eman ziotenetik urtebete igaro baino lehen."*

Alde horretatik, erreferentzia gisa hartu beharreko araudia 18/2008 Legearen 28.3. artikulua da, 4/2011 Legeak, azaroaren 24koak, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea aldatzen duenak ematen duen idazketan; hala dio:

"3.- Prestazioa azkentzeko arrazoia betebeharrak ez betetzea edo arau-hausteak egitea izan bada, titularrak ezin izango du berriz ere diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu, edozein izanik ere modalitatea, eskubidea azkendu den unetik urtebete igaro arte. Ondorio bera ekarriko du artikulua honen 1.d eta 1.e paragrafoetan azaldutako arrazoiengatik azkentzen bada eskubidea."

Arartekoaren iritziz, legeak ez du ezartzen zein ondorio dagoen betebeharrak betetzen ez direnean diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidearen titular izateko ezintasunari buruz, eta 147/2010 Dekretuak, maiatzaren 25ekoak, Diru sarrerak bermatzeko errentari buruzkoak, azkentzearen ondorioei buruzko 50. artikuluan ere, ez du ezer ere ezartzen horren gainean.

Azkentzeari buruzko ebazpenaren arrazoiengan ere ez da deus aipatzen arestian aipatu den 28. artikuluko 1.d) eta 1.e) manuak ez betetzeari buruz, ezta betebeharrak ez betetzeari buruz edo arau-hausteak egiteari buruz ere.





Bestalde, interesdunak pertsona bat kontratatuta zeukala ez jakinaraztea dela-eta, ezin da esan interesdunak bat-batean jazotako gertakari bat jakinarazteko betebeharra urratu zuenik; izan ere, aurrekarietan azaldu denez, kexaren sustatzaileari ez zioten esan bere enpresarako langile bat kontratatu ezin zuenik, eta datu hori ezkutatzeko asmorik ez zen egon, kontuan hartuta Lanbideri inguruabar horren berri eman zitzaiola, kexagileak hainbat aldiz aurkeztutako dokumentazioan ageri denez.

Azkenik, arrazoizkoa da ohar gisa esatea legelariak honako hau kontuan har zezakeela: diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular izateko baldintzak betetzeari utzi izanak ez luke eragotzi behar urtebeteen prestazio berriro eskatzea; izan ere, baliteke aurrerago baldintza horiek betetzea eta beste eskaera bat aurkeztea. Alde horretatik, kexaren sustatzaileak ez zekien bere negozioaren eginkizunak betetzeko langile bat kontratatzearen ondorioz diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titular izateko betekizunak galdu ahal zituenik; horrenbestez, 2015eko maiatzean, akatsaren berri izan bezain laster, bere enpresako langilearekin lan-harremana eten zuen. Are gehiago, ordura arte egiten zuen lan-jarduera bertan behera utzi behar izan zuen, enpresak etengabeko galerak zituelako.

Ondorio gisa, Arartekoaren iritziz, [Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen diagnostiko-txostenean](#), 2017an egindako horretan jasotzen zenez, "prestazioa iraungitzea erabakitzeke ebazpena eta horren ondoriozko ezintasuna, hots, prestazioa urtebeteko epean eskatzeko ezintasuna, aurreikusitako kasuetan bakarrik ezarri behar da, hedapenezko edo "analogiazko" interpretaziorik egin gabe". Horregatik, erakunde horren iritziz, hizpide dugun kasuan, ez dago justifikatuta kexaren sustatzaileak egindako bigarren eskaera ukatzea, araudian aurreikusitako urtea igaro ez izana arrazoi gisa emanda.

4-. Azkenik, behar ez bezala jasotako prestazioak itzultzeko betebeharrari dagokionez, interesdunaren prestazioak azkentzeari buruzko ebazpenaren arrazoietan azaltzen zenez, urratu egiten zen hainbat betebeharrak, adibidez bat-batean jazotako gertakarien berri ez ematea, baita hainbat baldintza ere, adibidez deklaraturik daudenetik gorako diru-sarrerak edukitzea. Hala ere, kexagileak bat-batean jazotako gertakariak jakinarazteko eginbeharra bete zuen. Baldintzei dagokienez, hasiera-hasieratik ez zituen betetzen, baina Lanbidek ez zuen urraketa





hori detektatu, eta ez zuen horren berri eman, garaiz detektatzeko beharrezko informazio guztia eskura izan arren.

Arartekoaren iritziz, funtsezkoa da argi eta garbi bereizketa bat egitea eteteko edo azkentzeko prozeduren tramitazioan, baldintzak edo betekizunak urratzeari dagokienez. Azken ideia horri buruz, 2017ko diagnostiko-txostenean Lanbideri zera azaldu zitzaion: *“prestazioen erreklamazioa soilik ezarri ahalko zela, erakunde honen ustez, betekizunak galtzen direnean edo aitortutako zenbatekoa aldatu behar denean, prestazioa kalkulatzeko kontuan hartutako egoerak aldatzeagatik.”*

Erakundea ados dago Lanbiderekin: prestazioaren titularrak baldintzak betetzeari utzi dio, baina benetan ez da asmorik egon behar ez bezala inolako diru-kopururik jasotzeko.

Azken horrekin lotuta, Arartekoaren ustez positiboa da hilean 30 euroko gutxieneko kuota itzultzea onartu izana, azkenean Lanbidek onartu egin duelako kexaren sustatzailearen egintzetan ez dagoela iruzur asmorik.

5-. Ondorio gisa, Arartekoaren ustez, azaldutakoaren antzeko kasuetan Lanbidek kontuan hartu behar ditu printzipio hauek: segurtasun juridikoa, arbitrariotasunaren debekua eta proportzionaltasun-judizioa; izan ere, prestazioa azkentzea, eta horrekin batera urtebetean prestaziorik ezin eskatzea eta jasotako prestazioak itzultzea, horiek guztiak oso ondorio kaltegarriak dira familientzat, eta batzuetan esan daiteke ondorio neurrigabeak direla.

Arartekoaren iritziz, araudiaren arabera, eskaera berria ukatzea ez dago legearen arabera babesterik, eta lehenago esan denez, kexagilearen jarduketarekin alderatuta ondorio neurri gabea sortzen da.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, iradokizun hau egin nahi diogu sailari:

Iradokizuna:

Arartekoak iradokitzen du berrikus dadila diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko ebazpena, uste baitu azkentzeko arrazoiak, baldintzak betetzeari utzi izanak, alegia, ondorio gisa ez duela zertan





sortu diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eskatzeko ezintasuna, geroago bete egin baitziren prestazio horien titular izateko ezarritako legezko baldintzak.

